

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK TXOMINENERAKO PROIEKTUARI EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Energiaren Euskal Erakundeak Txominenerako proiektuari emandako diru laguntzen inguruko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko uztailearen 10eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Sustapenak "LM.06-Txomin Enea" eremurako hirigintza garapen berrian ezarri beharreko District Heating-a abian jartzeko onarpenak eman ditu. Tresna honek eremu berean berogailu eta ur bero zerbitzuak sistema indibidualekin emango balira sortuko litzatekeen CO2 kopurua % 80 murriztu dezake. Hori dela eta, Replicate europar proiektuaren barruan sartzen da, Europak 2015ean onartu zuenean; beraz, Europatik diru laguntzak jasoko dira. Duela gutxi, Arantza Tapia sailburuak eremua bisitatu zuen, Eneko Goia alkateak gonbidatuta, eta bere garrantzia azpimarratu zuen Europako agintari batzuen aurrean. Hala ere, Energiaren Euskal Erakundeak ez du proiektua diruz lagunduko. Alegia, Europak diru-laguntza emango du, baina Eusko Jaurlaritzak, ez.

Batzordean alkatearen ordezkariak erantzun zuen: District Heatingaren esleipenean Energiaren Euskal Erakundeak parte hartu duela eta egindako prozesua EAEn etorkizunean eman litezkeen beste proiektuen, eredia izan daitekeela.

Gogorarazi behar dugu, ordea, EAEn mota honetako proiektu bakarra dela gaur gaurkoz, eta Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik ez izatea ezin dugu ulertu. Ezta horren aurrean Udal Gobernuak ezer ez gitea ere.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako.

MOZIOA

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egin beharreko bidea egin dezala Eusko Jaurlaritzaren aurrean, Txominenean, eta District Heating esperientziaren ildotik, energia eraginkortasunaren aldeko politikak aurrera eramateko diru-laguntzak lortzeko.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Josu Mirena Ruiz Martin

Donostiako EH Bilduko zinegotzia
EH Bildu udal taldeko zinegotzia